eaj pnv

BOZKATU EAJ-PNV

VOTA EAJ-PNV

#EMAN BIDEA ZARAUTZi
#UNA ZARAUTZ FUERTE

XABIER TXURRUKA FERNÁNDEZ

ZARAUZKO ALKATEGAIA

CANDIDATO A ALCALDE DE ZARAUTZ

1973 Zarautz

@eajpnvzarautz eajpnv.zarautz
www.eaj-pnv-zarautz.com

Lanbidez arkitektoa naiz, bi seme alaben aita. Zarauzko herrigintzan aritu ondoren, duela lau urte pausoa eman nuen Udalean zarauztarron alde lan egiteko. Aurrera egin dugu denon artean, eta bide horri bultzada berri bat ematea dut amets, zure babesarekin.

Soy arquitecto de profesión, padre de un niño y una niña, y he participado en eventos y asociaciones de Zarautz. Hace cuatro años di un paso para trabajar desde el Ayuntamiento en favor de los y las zarauztarras, y ahora aspiro a dar un nuevo impulso al camino realizado, con tu apoyo.

Nor dator nirekin? ¿Quién me acompaña?

1. Xabier Txurruka, 2. Miren Letamendia, 3. Jesus Arana, 4. Iratxe Zorrozua, 5. Iban San Martin, 6. Leire Arana, 7. Ixidor Larrañaga, 8. Jon Andoni Urdangarin, 9. Iker Basurko, 10. Irune Urbieta, 11. Koldo Uribarri, 12. Gorka Ostolaza, 13. Amaia Altube, 14. Juan Antonio Uranga, 15. Begoña Aizpurua, 16. Juantxo Larrañaga, 17. Ines Roca, 18. Javier Zarraonandia, 19. Nekane Iribar, 20. Peru Bazako, 21. Maribel Albizu.

ZARAUTZEKIKO GURE KONPROMISOAK
NUESTROS COMPROMISOS CON ZARAUTZ

ADINEKOENTZAT EGOITZA BERRIA

Foru Aldundiarekin elkarlanean, mendekotasuna duten adineko pertsonei bideratutako erresidentzia publiko berri bat martxan jartzea sustatuko dugu Iñurritzako Kortazar eremuko udal partzelan, dauden beharrei erantzute aldera.

NUEVA RESIDENCIA DE MAYORES

En colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa, promoveremos la puesta en marcha de una nueva residencia pública para personas mayores dependientes en la parcela municipal de Kortazar, en Iñurritza.



EGUNEKO ZENTROA ALDAPETAN

Aldundiarekin eta Gipuzkoako hirugarren sektoreko elkarteekin elkarlanean, 20 plaza izango dituen arretarako eguneko zentro berritzaile eta polibalente bat jarriko dugu martxan, aniztasun funtzionala duten pertsonentzat. Babes behar desberdinei emango die erantzuna.

CENTRO DE DÍA ALDAPETA

Nuevo centro de atención diurna para personas con diversidad funcional, con 20 plazas. Tendrá un carácter innovador, ya que dará respuesta a personas con diferentes necesidades de apoyo y trastornos, en colaboración con las entidades del tercer sector.

ELKARLANA ELKARTEEKIN

Herriko talde, entitate eta eragileei babesa eskaini, Zarauzko elkartegintza ehuna balioan jarriz. Boluntariotza, eta talde eta bizilagun elkarteen arteko elkarlana sustatuko dugu, koordinazio mahai batekin. Boluntariotzaren eguna ospatuko dugu Zarautzen.

COLABORACION CON LAS ASOCIACIONES

Apoyar a los grupos, entidades y agentes locales, poniendo en valor la riqueza del tejido asociativo zarauztarra. Fomentaremos el voluntariado y la colaboración entre grupos y asociaciones de vecinos a través de una mesa de coordinación. Celebraremos el Día del Voluntariado en Zarautz.

ZAHARTZE OSASUNTSU ETA AKTIBOA

Espazio berriak zabalduko ditugu Iñurritza eta Udaberri jubilatu elkarteetan, eta Adinekoen Mahaiak antolatutako jarduerak babestuko ditugu. Zarautz Lagunkoia proiektua sustatuko dugu, eta bakarrik bizi direnei baliabideak eskainiko dizkiegu.

ENVEJECIMIENTO ACTIVO Y SALUDABLE

Ampliaremos espacios en los edificios de las asociaciones de jubilados Iñurritza y Udaberri, y apoyaremos las actividades organizadas por la Mesa de Mayores. Asimismo, impulsaremos el proyecto Zarautz Lagunkoia y afrontaremos el problema de la soledad.

GIZARTE INKLUSIOA

Pertsonak erdigunean kokatuko dituen, eta inor atzean utziko ez duen eredu enpresarial eta ekonomiko baten aldekoak gara. Gizarte inklusioaren, eta zailtasun gehien dituzten pertsona eta kolektiboen integrazioaren alde jarraituko dugu lanean.

INCLUSIÓN SOCIAL

Apostamos por un modelo empresarial y económico centrado en las personas, y que no deje a nadie atrás. Continuaremos trabajando por la inclusión social y por la integración de las personas y colectivos con mayores dificultades.

ALDE ZAHARRA BIZIBERRITZEA

Legealdi honetan egindako peatonalizazio lanei bultzada berri bat emango diegu, Santa Marina, San Frantzisko eta Herrikobarra kaleetan ere obrak eginez. Neurri horrekin, Alde Zaharra biziberritu, herri erdigunea dinamizatu eta bizilagunen bizi kalitatea hobetuko dugu.

REVITALIZACIÓN DE ALDE ZAHARRA

Daremos continuidad a los trabajos de peatonalización realizados durante esta legislatura, extendiéndolos a Santa Marina, San Frantzisko y Herrikobarra kalea. Una medida que permitirá revitalizar Alde Zaharra, dinamizar el centro de la villa y mejorar la calidad de vida de los vecinos y vecinas.

ZARAUTZEKIKO GURE KONPROMISOAK
NUESTROS COMPROMISOS CON ZARAUTZ

HAUR PARKEAK ETA HIRI ALTZARIAK

Herriko hiri ekipamenduak eta elementuak behar bezala zaintzea eta mantentzea bizi-kalitatearen osagai garrantzitsu bat da. Azken lau urte hauetan egindako aurrerapenei jarraipena emango diegu, honako ekipamenduak berrituz eta modernizatuz: haur parke eta jolasak, hiri altzariak, iturriak, bizikletentzako aparkalekuak eta markesinak.

PARQUES INFANTILES Y MOBILIARIO URBANO

El cuidado y mantenimiento de los equipamientos urbanos es sinónimo de calidad de vida. Continuaremos con los avances realizados durante estos cuatro años, llevando a cabo la sustitución y modernización progresiva de parques y juegos infantiles, mobiliario, fuentes, bicicleteros y marquesinas.

ASTIKO AISIA GUNEKO ZERBITZUAK MARTXAN JARRI

Astiko aisia gunea eraberrituko dugu, kantina eta komun berriak eraikiz, eta haurrentzat jolaserako espazioa sortuz, altzari berriekin eta etxeko txikien segurtasuna bermatuko duten itxiturekin. Honez gain, piknik gunea ere berrituko dugu.

REAPERTURA DE LOS SERVICIOS DE LA ZONA DE ASTI

Renovaremos la zona de ocio de Asti, construyendo una nueva cantina y nuevos baños, y creando un espacio de juegos para niños y niñas, con nuevo mobiliario y cerramiento para garantizar la seguridad de nuestros pequeños y pequeñas. Además, renovaremos la zona de picnic.

HERRITARREN SEGURTASUNA

Udaltzaingoaren egoitzaren modernizazioa eta handitzea ahalbidetuko dugu, bere instalazioak Nafarroa Kaleko Gurutze Gorriaren eraikinean kokatuz, berrikuntza lanak egin eta gero. Espazio gehiago, bitarteko hobeak, eta kokapen egokia edukiko du herritarrei zerbitzu modernoagoa, arinagoa eta gertukoagoa eskaintzeko. Egoitza berriak 850 metro karratu izango ditu, arretarako espazioa barne, eta hala ikusgarritasuna eta irisgarritasuna irabaziko ditu Udaltzaingoak.

SEGURIDAD CIUDADANA

Apuesta por la modernización y ampliación de la Policía Municipal, reubicando sus dependencias en el edificio de la Cruz Roja en Nafarroa kalea, tras su renovación. Contará con más espacio, mejores medios, y una ubicación adecuada para ofrecer un servicio más moderno, ágil y cercano a la ciudadanía. Con la nueva sede, de 850 metros cuadrados, incluyendo un espacio de atención a la ciudadanía, la Policía Municipal ganará en visibilidad y accesibilidad.

KIROL INSTALAZIOAK BULTZATU

Astin atletismo pista berri bat, eta hirugarren futbol zelaia egitea aurreikusten duen proiektua garatu eta Asti Txiki zelaiko belar artifiziala berrituko dugu. Udal padel pista estaliak egingo ditugu eta Lizardiko kirol pista estali berria zabalduko dugu. Itxasmendiko teniseko pistak eta "Alfa" kirol pista berrituko ditugu. Zelai Ondoko bolatokia zabaldu eta estaliko dugu. Kiroldegian eskalada egiteko espazioa ahalbidetuko dugu eta ordutegia zabalduko dugu jai egunetan.

POTENCIAR LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS

En Asti desarrollaremos el proyecto de una nueva pista de atletismo y un tercer campo de futbol, y renovaremos la hierba artificial de Asti Txiki. Construiremos pistas cubiertas de pádel y abriremos el nuevo pabellón cubierto de Lizardi. Renovaremos las pistas de tenis de Itxasmendi y la pista deportiva de "Alfa". Ampliación y cobertura de la bolera de Zelai Ondo. Ampliaremos el horario del polideportivo los días festivos y habilitaremos una zona para la práctica de la escalada.

ZARAUTZEKIKO GURE KONPROMISOAK
NUESTROS COMPROMISOS CON ZARAUTZ

ZARAUTZEKIKO GURE KONPROMISOAK
NUESTROS COMPROMISOS CON ZARAUTZ

TOKIKO MERKATARITZA SUSTATU

Merkataritza dinamizatuko dugu eta merkatarien eta ostalarien mugimendu asoziazionistarekin elkarlanean sakonduko dugu, Murkil eta Zurekin elkarteen bidez. Bertako kontsumoa sustatuko dugu, eta komunikabideetan presentzia eta Zarautzi itzulpen ekonomikoa ematen dioten ekitaldi sozial eta kulturalak, eta kirol ekitaldiak sustatu eta babestuko ditugu.

FOMENTO DEL PEQUEÑO COMERCIO

Dinamizaremos el pequeño comercio y profundizaremos en la colaboración con el movimiento asociativo de comerciantes y hosteleros a través de Murkil y Zurekin. Promoveremos el consumo local y patrocinaremos eventos sociales, culturales y deportivos que den presencia mediática y que generen un retorno económico para Zarautz.

CO-WORKING

Udal Elkartea eta Beterri-Kostako Industrialdearekin elkarlanean, co-working erara lan egiteko aretoak prestatuko ditugu Abedañon, ekintzailetzari bultzada eman eta ekintzaileek beren lehen pausoetan laguntza eta babesa jaso ahal dezaten.

CO-WORKING

Creación de aulas para para trabajar en modo co-working, en colaboración con la Mancomunidad y Beterri-Kostako Industrialdea, para impulsar el emprendizaje y que las personas emprendedoras puedan recibir apoyo y ayuda en sus primeros pasos.

JARDUERA EKONOMIKO BERRIAK ETA KALITATEZKO ENPLEGUA

Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, Errotaberri industria gunea sustatzen jarraituko dugu, esparruko konexioa zein ingurugiro baldintzak hobetuz, eta jarduera ekonomiko eta enpresa berriak erakarriz, lanpostuak sortu ahal izateko eta gure herriaren ekonomia suspertzeko. Era berean, Urola Kostako Udal Ekartearekin elkarlanean, lana lortzeko zailtasun gehien dituzten pertsona eta kolektiboen enplegua, prestakuntza jarduerak, eta ekintzailetza programak sustatuko ditugu, diru laguntzak bideratuz, besteak beste. Erraztasunak emango dizkiegu negozio bat abian jartzeko ideiak eta egitasmoak dituztenei.

NUEVAS ACTIVIDADES ECONÓMICAS Y EMPLEO DE CALIDAD

En colaboración con el Gobierno Vasco, continuaremos promoviendo la zona industrial de Errotaberri, mejorando el acceso y las condiciones medioambientales de la zona, y poniendo en marcha nuevas actividades económicas y empresas que permitan crear puestos de trabajo y revitalizar la economía de nuestra localidad. Asimismo, en colaboración con la Mancomunidad, impulsaremos ayudas para promover el empleo de personas y colectivos que tienen dificultades para obtener un empleo, así como las actividades de formación y los programas de emprendizaje, para que todos aquellos que quieran poner en marcha una idea de negocio cuenten con facilidades.

ZARAUTZEKIKO GURE KONPROMISOAK
NUESTROS COMPROMISOS CON ZARAUTZ

ZARAUTZEN BIZI

Etxebizitzaren arloan Zarautzek dituen beharrei erantzuteko lanean jarraituko dugu, babes ofizialeko, alokairu sozialeko eta prezio tasatuko etxebizitzak sustatuz, Lanpardo kalean, Iñurritzan eta Salberdinen. Neurri eraginkorrak hartuko ditugu etxe hutsen alokairua errazteko. Behe solairuko lokalak etxe gisa egokitzeko udal ordenantza berrikusi eta eguneratuko dugu.

VIVIR EN ZARAUTZ

Seguiremos trabajando para dar respuesta a las necesidades de Zarautz en el ámbito de la vivienda, promoviendo viviendas de protección oficial, de alquiler social y tasadas en Aldapeta, Lanpardo kalea, Iñurritza y Salberdin. Fomentaremos medidas efectivas para facilitar el alquiler de viviendas. Revisión y actualización de la ordenanza municipal de conversión de locales en planta baja para nuevas viviendas.

IRITA

Irita guneko ingurunea berreskuratzearekin bateragarria den jarduera parke bat bultzatuko dugu. Parkea aisialdirako eta kirola praktikatzeko egokituko da. Ingurumena errespetatuz, hezegunea txukun eta garbi mantenduko da eta natura eta aisialdia bateratuko dituen espazio bat sortuko dugu. Iritako hezeguneen kontserbazioaren eta balioaren garrantzia azpimarratuko duten panelekin eta jarduerekin osatuko da.

IRITA

Impulsaremos un parque de actividades compatible con la recuperación ambiental de la zona de Irita. El parque se acondicionará para la práctica del deporte y el ocio. Respetando el medio ambiente, se mantendrá el humedal limpio y se creará un espacio que aunará naturaleza y ocio. Se completará con paneles y actividades que hagan hincapié en la conservación y en el valor de los humedales de Irita.

APARKALEKU GEHIAGO

Lanak egingo dira Azken kalean, eta Bizkaia kalea urbanizatzeko, Salberdingo eremuaren hirigintza garapenaren testuinguruan. Udan, bisitarientzako aparkalekuak ahalbidetzen jarraituko dugu, jarduera turistikoa eta bizilagunentzako aparkaleku aukerak uztartuz. Bizikleteroak jartzeko plangintzari eutsiko diogu, erdigunean zein auzoetan.

MÁS APARCAMIENTO

Trabajos en Azken kalea y reurbanización de Bizkaia kalea en el marco del desarrollo urbanístico del área de Salberdin. Continuaremos habilitando zonas para aparcamientos específicos destinadas a vehículos de visitantes en verano, compaginando la actividad turística con el aparcamiento para vecinos y vecinas. Seguiremos instalando más bicicleteros tanto en el centro como en los barrios.

LANDA GARAPENA ETA MERKATU PLAZA

Gure nortasunaren parte dira landa auzoak. Horien azpiegiturak, ekipamenduak eta jarduerak hobetzeko lanean jarraituko dugu, bizilagunekin eta erakundeekin elkarlanean. Baserritarrek egiten duten lana eta produktuak ezagutzera eman eta balioan jarriko ditugu, kontsumoa eta merkaturatzea sustatuz. '0 KM' produktua bultzatuko dugu eta Merkatu Plaza eraberritzeko plan bat martxan jarriko dugu.

DESARROLLO RURAL Y MERKATU PLAZA

Las zonas rurales son parte de nuestra identidad. Continuaremos mejorando sus infraestructuras, equipamientos y actividades, en colaboración con los y las vecinas e instituciones. Daremos a conocer el trabajo que realizan los y las baserritarras, ayudando en la valorización, consumo y comercialización de sus productos. Impulsaremos el producto 'KM 0' y dinamizaremos Merkatu Plaza.

ZARAUTZEKIKO GURE KONPROMISOAK
NUESTROS COMPROMISOS CON ZARAUTZ

IGOGAILUAK ALDAPETAN

Aldapeta eremuko urbanizazio lanei amaiera emango diegu. Irisgarritasuna erraztuko duten bi igogailu jarriko ditugu, San Ignacio kaletik Aldapetako urbanizazioraino, alde batetik, eta Santa Anatik Sarakatua torreraino, Vista Alegren, bestetik.

ASCENSORES EN ALDAPETA

Culminaremos la urbanización del área de Aldapeta con la puesta en marcha de dos ascensores que facilitarán la accesibilidad desde San Ignacio kalea a la propia urbanización de Aldapeta por un lado, y hasta las inmediaciones de la torre de Sarakatua, en Vista Alegre, por otro.

VISTA ALEGRE AUZOKO IRISGARRITASUNA BERMATU

Vista Alegre auzoaren guztizko irisgarritasuna bermatuko duen proiektua garatuko dugu, bizilagunek egin dituzten eskaerak aintzat hartuz. Proiektuan, hiru igogailu aurreikusten ditugu, auzoko etxebizitza guztietara irisgarritasuna erraztuko dutenak.

ACCESIBILIDAD EN VISTA ALEGRE

Desarrollaremos el proyecto que garantizará la accesibilidad completa en el barrio de Vista Alegre, dando respuesta a las demandas de los vecinos y vecinas. En el proyecto se contemplan tres ascensores que facilitarán la accesibilidad a todas las viviendas del barrio.

BIRIBILGUNE BERRIA IÑURRITZAN

Iñurritza auzoan, Gipuzkoa eta Nafarroa kaleen arteko bidegurutzean, ibilgailuen segurtasuna hobetuko duen biribilgune berria eraikitzeko proiektua aurrera eramango dugu. Bertan, N-634 errepidean oinezkoentzat pasagune berri bat sortzea proposatzen dugu.

NUEVA ROTONDA EN IÑURRITZA

Llevaremos a cabo el proyecto que mejorará, con una nueva rotonda, la seguridad de los vehículos y la fluidez del tráfico en el cruce entre Nafarroa y Gipuzkoa kalea, en el barrio de Iñurritza. Además, proponemos crear un nuevo paso de peatones en este punto de la N-634.

BIDE SEGURTASUNA

Oinezkoen eta bizikleten segurtasuna bermatzeko, Zelai azpibidean, bizikletentzat, aldapa txikiagotu eta babestutako bidea jarriko da. Bide gorri sarea osatzeko lanei segida emango diegu, Araba kalean zati berri bat eraikiz. Hiruerreketa eta Vista Alegre artean, paseo berria egingo dugu oinezkoentzat.

SEGURIDAD VIAL

Con el fin de garantizar la seguridad de peatones y ciclistas, habilitaremos vías protegidas, con reducción de pendiente, en el paso subterráneo de Zelai. Seguiremos completando la red de bidegorris, con un nuevo tramo en Araba kalea. Haremos un nuevo paseo para viandantes entre Hiruerreketa y Vista Alegre.

ZARAUTZ KONEKTATUAGOA

Trenbidearen inguruko segurtasuna eta mugikortasuna bermatzeko bidean, Eusko Jaurlaritzaren eskutik, Salberdin eta Lapurdi-Gaztainpe-Zigordia kaleak lotuko dituen azpi pasagunea eraikitzeko proiektua garatuko dugu. Mitxelena eta Hegoalde kaleen artean lurrazpiko pasagune bat egiteko azterketa bultzatuko dugu.

UN ZARAUTZ MÁS CONECTADO

Con el objetivo de garantizar la seguridad y movilidad en el entorno de las vías del tren, de la mano del Gobierno Vasco, desarrollaremos el proyecto de construcción de un paso subterráneo que una Salberdin con las calles Lapurdi - Gaztainpe - Zigordia. También impulsaremos el estudio de un paso subterráneo por debajo de Hegoalde y Mitxelena kalea.

TREN-AUTOBUS GELTOKI BERRIA

Intermodalitatea, jasangarritasuna eta garraio publikoaren sustapena dira etorkizuneko mugikortasun ereduaren bi oinarri nagusiak; Zarautzen ere bai. Hori dela-eta, aurreneko pausoak emango ditugu Iñurritzako tren estazioan tren-autobus estazio intermodal berria eraikitzeko proiektua mamitzeko.

NUEVA ESTACIÓN DE TREN-AUTOBÚS

La intermodalidad, la sostenible y el fomento del transporte público son tres de los pilares sobre los que se asienta la movilidad del futuro; también en Zarautz. Por ello, daremos los primeros pasos para acometer el proyecto de una nueva estación de tren-autobús intermodal en la estación de tren de Iñurritza.

ZARAUTZEKIKO GURE KONPROMISOAK
NUESTROS COMPROMISOS CON ZARAUTZ



ESPALOIEN KONPONKETA

Kale atseginagoak eta irisgarriak lortzeko, eta agintaldi honetan garatutako plangintzarekin jarraituz, Lauaxeta eta Aresti kaleko hirigintza lanekin hasiko gara. Espaloien konponketa eta peatonalizazio proiektuekin jarraituko dugu, Santa Marina, Zelai Ondo, Nafarroa eta Gipuzkoa kaleetan.

ARREGLO DE ACERAS

Continuando con la planificación de esta legislatura, arrancaremos con las obras de urbanización de Lauaxeta y Aresti kalea. Seguiremos con los proyectos de arreglo de aceras en Zelai Ondo, Nafarroa, Gipuzkoa y Santa Marina kalea, con un Zarautz más amable y accesible como horizonte.

MALEKOIA BERRITU

Zarauzko malekoia eremu paregabea da eta ezinbestekoa ikusten dugu bertako lurzorua berritzea. Gure asmoa prozesu parte hartzaile bat martxan jartzea da, herritarrek erabaki dezaten nahi duten zorua. LED argiteria jarriko dugu farola guztietan eta hiri altzariak berrituko ditugu.

RENOVACIÓN DEL MALECÓN

El malecón de Zarautz es un espacio singular y consideramos imprescindible renovar y arreglar el pavimento. Pondremos en marcha un proceso participativo para que la ciudadanía elija el tipo de revestimiento. También colocaremos luminarias LED en todas las farolas y renovaremos el mobiliario urbano.

KALE GARBIKETA AREAGOTU

Harrera bikaina eduki duen Auzoz-auzo programa indartuko dugu. Garbiketa lan intentsiboak programatuko ditugu, Zarauzko auzo guztietan, garbiketa mota ezberdinak uztartuko dituztenak: espaloiak, pintadak, kartelak, gune berdeak...

REFUERZO DE LA LIMPIEZA

Reforzaremos el programa Auzoz-auzo, que ha tenido una acogida excelente. Programaremos limpiezas intensivas que integren y concentren el conjunto de actividades de limpieza en cada uno de los barrios de Zarautz: aceras, pintadas, carteles, zonas verdes...

JASANGARRITASUNA SUSTATU

Zarauzko Udalaren jarduera jasangarriagoa izan dadin, konpromiso bereziak hartuko ditugu. Horiek eredu izan behar dute baliabide naturalak eta energetikoak modu arduratsuan kudeatzeko, faktura energetikoa murrizteko, aldaketa klimatikoa ekiditen laguntzeko eta jasangarritasuna jarduera ekonomikoaren agente bezala sustatzeko.

FOMENTAR LA SOSTENIBILIDAD

Compromiso para promover un Ayuntamiento más sostenible, que sirva como ejemplo en la gestión responsable de recursos naturales y energéticos, reducir la factura energética, contribuir a mitigar el cambio climático y promover la sostenibilidad como agente movilizador de la actividad económica.

KOMUN AUTOGARBIGARRIAK

Komun autogarbigarriak jarriko ditugu Iñurritzan, Itxasmendin, Astin, Malekoian ('skate park'-aren parean), Lapurdi kalean (Musika eta Dantza Eskola aurrean) eta Urdaneta kalean (Lizardi aurrean).

WC AUTOLIMPIABLES

Instalaremos nuevos WC autolimpiables en Iñurritza, Itxasmendi, Asti, Malecón (a la altura del skate park), Lapurdi kalea (frente a la Musika eta Dantza Eskola) y Urdaneta kalea (frente a Lizardi).

GARBIGUNE BERRIA

Abendañon Garbigune berria jarriko dugu martxan, Urdaneta kaletik konexio zuzena ahalbidetuz, aparkalekua handituz, eta La Salle Ikastetxeraino joango den espaloia eginez.

NUEVO GARBIGUNE

Puesta en marcha de un nuevo Garbigune en Abendaño, abriendo un nuevo acceso directo desde Urdaneta kalea, ampliando la zona de aparcamiento y acondicionando una nueva acera hasta el colegio La Salle.

ZARAUTZEKIKO GURE KONPROMISOAK
NUESTROS COMPROMISOS CON ZARAUTZ

EUSKARA, KULTURA, NORTASUNA

Euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatuko dugu arlo ezberdinetan. Kulturari lotutako ekitaldien eskaintza hobetu eta zabalduko dugu, gure herriaren nortasunaren eta bizi estiloaren ikur garrantzitsua direlako. Bestearen ezagutzatik, eta norbanakoaren aberastasun eta integrazio tresna bezala, kultur aniztasuna landuko dugu.

EUSKERA, CULTURA, IDENTIDAD.

Potenciaremos el aprendizaje y el uso del euskera en los distintos ámbitos. Mejoraremos y ampliaremos la oferta de actividades culturales, pilares de nuestro estilo de vida e identidad. Trabajaremos la multi-culturalidad como herramienta de integración desde el conocimiento del distinto y como vehículo del enriquecimiento personal.

LEHEN MAILAKO EKITALDIAK

Elkarte eta kirol taldeekin elkarlanean, herriaren ikur bihurtu diren eta oihartzuna ematen dioten ekitaldiak bultzatuko ditugu, eta beste batzuk antolatzen jarraituko dugu, besteak beste, askotariko lehen mailako kontzertu eta ikuskizunak. Zarauzko sortzaileen aldeko apustua egingo dugu, herriko kultur eskaintzan presentzia emanez.

EVENTOS DE PRIMER NIVEL

En colaboración con asociaciones y grupos deportivos, impulsaremos eventos que se han convertido en un icono del municipio, y continuaremos organizando otros, como una oferta variada de espectáculos de primer nivel. Apostaremos por los creadores zarauztarras: apoyaremos su actividad incluyéndolos en la oferta cultural del municipio.

ONDARE HISTORIKO ETA ARTISTIKOA

Zarauzko ondare historikoa eta artistikoa balioan jarriko dugu. Torreoian zaharberritze obrak bukatuko ditugu: jatorrizko egiturari eutsi, segurtasuna bermatu eta sarbidea hobetuko da. Auzotarrekin eta herriko taldeekin elkarlanean, programazio erakargarri bat prestatuko dugu espazioari etekin guztia ateratzeko.

PATRIMONIO HISTÓRICO-ARTÍSTICO

Pondremos en valor el patrimonio histórico-artístico de Zarautz. Concluiremos los trabajos de rehabilitación del Torreón, que conservarán su estructura original, garantizarán la seguridad y mejorarán el acceso. Dinamizaremos el espacio con una programación atractiva, de la mano de los y las vecinas, y las asociaciones.

INGURUGIROA ZAINDU

Denon artean zaindu beharreko altxorra dira Zarauzko espazio naturalak. Herria inguratzen duen eraztun-parkea bultzatuko dugu. Biotopoan landare eta animalien kontserbaziorako jarduerak burutzeko eta indarrean dagoen babeserako legedia betearazteko egingo dugu lan. Sentsibilizazio eta zibismo kanpainetan sakontzeaz gain, erakundeen arteko akordioa landuko dugu espazio horren mantenua eta garbitasuna bermatzeko. Kale garbiketa, kontsumo arduratsua, prebentzioa eta birziklapenari lotutako sentsibilizazio ekimenak jarriko ditugu martxan. Aisialdirako eta atsedenerako eskubideak uztartzeko neurriak hartuko ditugu.

CUIDADO DEL MEDIO AMBIENTE

Los espacios naturales de Zarautz son una joya que debemos preservar entre todos y todas. Apostaremos por potenciar el parque periurbano de Zarautz. Fomentaremos la conservación de la flora y fauna del biotopo y contribuiremos a que se cumpla la legislación protectora vigente, además de llegar a un acuerdo interinstitucional para el mantenimiento y limpieza del entorno. Incidiremos en las campañas de sensibilización y civismo. Llevaremos a cabo campañas específicas de sensibilización sobre limpieza viaria, consumo responsable, prevención y reciclaje. Tomaremos medidas para compatibilizar el derecho al ocio y el derecho al descanso.

ZARAUTZEKIKO GURE KONPROMISOAK
NUESTROS COMPROMISOS CON ZARAUTZ

MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

Zarauzko Udalak erosi berri duen Udal Musika eta Dantza Eskolaren eraikineko behe solairua zabalduko eta eraberrituko dugu. Horrela, dantza arloa sustatzeko eta eskolaren hezkuntza eskaintza osatzeko erabilgarriak izango diren espazioak sortuko ditugu.

ESCUELA DE MÚSICA Y DANZA

Renovaremos y ampliaremos la planta baja del edifico que recientemente ha adquirido el Ayuntamiento para la Escuela Municipal Música y Danza. Así, dispondremos de nuevos espacios para promover la danza y completar la oferta educativa de la escuela.



MODELO ARETOA, KULTURAREN BIHOTZA

Modelo Areto eraberritua biziberrituko dugu, azpiko solairua elkarteen jarduerentzako eta herriko ekitaldientzako espazio polibalente modura egokituz. Kulturarekin zein aisialdiarekin lotutako ekitaldiak bultzatuko ditugu, herritarren eskaerei erantzuteko: dantza, zine forum-a, opera proiekzioak...

CINE MODELO, CORAZÓN CULTURAL

Daremos vida al renovado Modelo Aretoa, acondicionando el amplio sótano como espacio polivalente para las actividades de las asociaciones de Zarautz. Promocionaremos nuevas actividades culturales y de ocio demandadas por la ciudadanía: danza, cine fórum, proyecciones de ópera...

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Hizkuntza Eskola Ofizialaren egoitza bat Zarautzen kokatzeko hitzarmena eta espazioak lortzeko urratsak emango ditugu.

ESCUELA OFICIAL DE IDIOMAS

Daremos los pasos necesarios para la consecución de un acuerdo y destinar espacios para ubicar una sede de la Escuela Oficial de Idiomas en Zarautz.

KULTUR ESPAZIOAK SUSTATU

Aipagarriak dira Zarautzek dituen kultur elkarteen kopurua eta kalitatea, eta antolatzen diren ekitaldiak. Kultur arloan ikusi ditugun beharrei erantzuna emateko asmoz, Santa Klarako parkean ekipamendu kulturala eta lur azpiko aparkalekua izango duen proiektu berria garatuko dugu. Era berean, elkarte eta eragileekin elkarlanean, dituzten beharren azterketa eguneratuko dugu.

PROMOCIÓN DE ESPACIOS CULTURALES

Zarautz destaca por la cantidad y calidad de asociaciones culturales y eventos. Al objeto de dar respuesta a las necesidades que en el ámbito cultural hemos detectado, desarrollaremos, en el Parque de Santa Klara, el proyecto de un nuevo equipamiento cultural y aparcamiento subterráneo. Asimismo, en colaboración con las asociaciones y agentes culturales, procederemos a actualizar el estudio de necesidades de los mismos.

PENTSATU ZER BOZKATZEN DUZUN

VOTA COMO SI DE ELLO DEPENDIERA TU FUTURO

MARKEL OLANO ARRESE

@markelolano
@MarkelOlano
@markel_olano

EAJ-PNVREN HAUTAGAIA GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSI IZATEKO
CANDIDATO DE EAJ-PNV A DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

#EMAN BIDEA GIPUZKOAri
#UNA GIPUZKOA FUERTE

BOZKATU EAJ-PNV
VOTA EAJ-PNV

eaj pnv